

The select
city.



Donostia
San Sebastián
Premium



Donostia, bakarra munduan dio Donostiako Martxak, 1861ean konposatu zenak eta urtero urtarrilaren 20an donostiar irrikatsuek abestu ohi dutenak. Hiriaren definiziorik onena ematen dute hitz horiek. Hiru hitz, hiriaren berezitasun zoragarria adierazteko.

Donostiako historian eta bizimoduan sumatzen da berezitasun hori. Horren erakusgarri dira, besteak beste, hiriko arrantzale-portua — piraten sorlekua izan zena — eta Belle Époque estiloko arkitektura.

Donostia urdina da, eta berdez inguratua dago. Ospetsua da, batez ere, maskor perfektuaren itxura duen badiagatik: hiru hondartza handitara helarazten du itsasoa, eta, erdian, koroa balitz bezala, uharte bat du, non hegoaldera begiratzen duen Euskadiko hondartza bakarra baitago.

Sukaldaritza tradizionala eta abangoardiakoa bizikide dira Donostian. Izan ere, munduko Michelin izarren kontzentrazioarik handiena dago bertako jatetxeetan. Nazioarteko Zinemaldia antolatzen du urtero, jazz musikako izarrik onenak hartzen ditu udaro eta artea eta kultura harrotasunez erakusten ditu bere kale eta museoetan.

Donostiara etortzen zarenean, haren edertasunaz gozatuko duzu, eta, pixkana-pixkana, kultura eta bizimodu ona maite dituen hiri honetan murgilduko zara.

Argazki gehien egin zaien munduko hirietako bat da Donostia, eta aukera asko eskaintzen dizkio bisitariari. Baina plazer txikiak bizitasun handiz dastatzera gonbidatzen duen hiri honen esentzia ezagutu nahi baduzu, hemen azalduko dizugu sekretua.



orrialde honetan — Kontxako badiaren edertasuna
ukaezina da, nonahitik begiratuta ere.

eskuinean — Urumea ibaiak Kantauri
itsasora isurtzen ditu urak, Donostiako irudirik
ezagunenetako bat osatuz.



The seductive city.

Agerikoa, ikonikoa eta ukaezina da Donostiaren edertasuna. Baina, edertasuna ez ezik, bestelako sekretuak ere gordetzen ditu hiriak —eta kontatu egin nahi dizkizu—, bai eta jakinaren gainean zaudenean gertatzen diren mirariak eta erakutsi nahi dizkizun bazter zoragarriak ere. Sedukzioaren lekua eta unea da. Gozoa eta ahaztezina izango da. Murgil zaitez.



orrialde honetan — Igeldo mendiko itsasargira daraman
errepide bihurgunetsuan ibiltzea da hiriaren edertasun
magnetikoaz goatzeko modu bat.

eskuinean — Munduko leku guztietatik etorritako surflariak
partaide dira Donostiako paisaia naturalean.



The favoured city.

Zorte ona izan zuen Donostiak dohainen banaketa egin zenean. Geografia magnetikoa egokitu zitzaion: munduan parekorik ez duen badia, hiru hondartza, ibai bat eta inspirazio handiko artista batek zizelkatutako kostaldea. Ondoren, edertasun natural horren gainean, plazer artifizialak —delikatu eta hunkigarriak— eraiki zituen. Bestelako bizimodua, ohiz kanpokoan, eraiki zuen. Zorioneko bizimodua, zurekin partekatu nahi genukeena.



— Aire zabaleko museo ikusgarria ere bada Donostia, hainbat eskultura baititu ikusgai, hala nola Jorge Oteizaren *Eraikuntza hutsa* edo *Hondalea* instalazioa, Santa Klara uharteko itsasargian dagoen Cristina Iglesiasen obra; itsaslasterrak gogorarazten dituen ura handik igarotzen da. Edo Chillida Leku, Eduardo Chillida eskultore donostiarraren obrarik garrantzitsuenetako batzuk biltzen dituen museoa. Eta oso hurbil, Getarian, Balenciaga Museoa, herri horretan bertan jaioetako jostun bikainari eskainia.



The inspiring city.

Hementxe jaio zen Chillida,
pentsa. Hementxe daude haren
obrarik garrantzitsuenetako batzuk;
eta, kilometro gutxira, haren
ibilbidea jasotzen duen museoa.
Dena den, askoz gehiago dago:
Oteiza, Balenciaga, San Telmo
Museoa, Zinemaldia, Donostiako
Orfeoia...

Emankorra eta landua da Donostia,
mundu osoko eraginez ureztatua.
Baina, horrez gain, berezko
nortasuna du, baita Europako
hizkuntzarik zaharrena ere:
euskara. Kultura-usain gozoa dario
Donostiari.



— Dastatzeko hiria da Donostia;
adibidez, pintxo-tabernetan edo Michelin
izarak dituzten jatetxeetan. Sekulako
eskaintza, zaporez eta ñabarduraz betea.



The savoury city.

Hiri asko ikusi egiten dira; beste batzuk, berriz, ikusi ez ezik, dastatu ere egiten dira. Donostia, adibidez: pixkana-pixkana ahogozatzen da, ñabardurak ondo hautemateko eta testurak, koloreak, usainak eta sentrazioak ahoan eta oroimenean betiko gordetzeko. Dela pintxo-tabernetan, dela sagardotegietan, dela munduko Michelin izarren kontzentrazioarik handienean, egunero milaka pizgarri gastronomiko prestatzen ditu hiri honek. Onenetako batzuk aukeratu ditugu zuretzat. Zure emozioa bermatuta dago.



orrialde honetan — Urgull mendiko talaiek uhartearen eta badiaren gaineko ikuspegi ezin hobeak eskaintzen dituzte.

eskuinean — Donostiako hiru hondartzak, bakoitza bere ezaugarriekin, Europako hiri-hondartzarik onenen artean daude.



The homely city.

Hiri txiki batean bizi garelako izango da. Edo euskal izaera halakoa delako: barnerakoia, baina leiala eta emankorra. Kontua da asko gustatzen zaigula duguna eta garena partekatzea gu ezagutzeko asmo zintzoa duen jendearekin. Zatoz gurekin lekurik jatorrenetara, hemen bizi direnek bakarrik ezagutzen dituztenetara. Senti zaitez etxean bezala. Senti zaitez donostiar eta goza ezazu gutako bat izango bazina bezala. Besoak zabalik hartuko zaitugu: ongi etorri!





16 — 23



24 — 28



29 — 40



41 — 48



49 — 51



52



Ostatuak.
ZURE ZAIN
GEUNDEN.

16 — 23

- 16 Akelarre hotela
- 17 María Cristina hotela
- 18 Arbaso hotela
- 19 De Londres y de Inglaterra hotela
- 20 Lasala Plaza hotela
- 21 Villa Favorita hotela
- 22 Villa Magalean hotela
- 23 FeelFree Rentals apartamentuak

Jatetxeak.
DENA AHOAREN
GOZAGARRI.

24 — 28

- 24 Akelarre
- 25 Arzak
- 26 Martín Berasategui
- 27 Mugaritz
- 28 Rekondo

Baliabideak eta esperientziak.
BIZI EZAZU BERTATIK
BERTARA.

29 — 40

- 30 Donostiako Aquariuma
- 31 Chillida Leku Museoa
- 32 Cristobal Balenciaga Museoa
- 33 Hiruzta Upategia
- 34 Katxiña Upategia Jatetxea
- 35 Mimo Bite the experience
- 36 Brai Kantauri
- 37 Navegavela
- 38 Ostarte Sailing
- 39 Oribay Tours
- 40 Reale Arena-Real Sociedad

Saltokiak.
ERAMAN DONOSTIAREN
ZATITXO BAT.

41 — 48

- 42 Box San Sebastián
- 43 Minimil
- 44 Casa Munoa Bitxi-denda
- 45 Benegas Lurrin-denda
- 46 Real Sociedad de Fútbol denda ofiziala
- 47 Arteko Gallery
- 48 Ekain Arte Lanak

Agentziak.
ZUREKIN JOANGO
GARA, EZER GALEZ
DEZAZUN.

49 — 51

- 50 Basque Destination
- 51 Tenedor Tours

Garraioa.
ATETIK
ATERA.

52

- 52 Talur Luxury Cars

AKELARRE

hotela



Helbidea:
Aita Orkolaga, 56
(Igeldo mendia)
20008 Donostia


Kontaktua:
T. (+34) 943 311 208
info@akelarre.net

akelarre.net

2017an Pedro Subijanak inauguratutako bost izarreko hotelak eta Espazio Oteiza gastronomikoak Akelarre unibertso hedakorra osatzen dute. Jatetxeak hiru Michelin Izar eta hiru Repsol Eguzki ditu. Egunez egun aurrera egin, etengabe hobetu eta bikaintasuna bilatzea ezaugarri dituen markaren izpirituaren erakusgarri da. Gela guztiak luxurik handienez jantzita daude, eta terraza pribatuz hornituta; gainera, argiak dira, eta itsasora begira daude. Igerileku girotua duten bi suite daude, bai eta Junior Suiteak eta Deluxe gelak ere, espazio komunez eta terraza eskusiboez gain.

MARIA CRISTINA

hotela



Helbidea:
Argentinaren Errepublika, 4
20004 Donostia

Kontaktua:
T. (+34) 943 437 600
hmc@luxurycollection.com

hotel-mariacristina.com

1912an inauguratu zenetik, Maria Cristina hotela Donostiako historiarekin eta kultur bizitzarekin lotuta egon da. Hotelaren diseinu arranditsuak eta barnealdeko luxuak, Urumearen ertzean eta itsasora begira egonik gainera, alojamen du kuttun bilakatu zuten Espainiako eta atzerriko turistentzat. Hotelaren beheko solairuan dagoen Dry Martini Bar tabernak omen egiten die glamour handiko garai bati eta Hollywoodeko ohiko ostatu-hartzaileei.

ARBASO

hotela




Arbaso hotela 2020an inauguratu zen Artzain Onaren katedralaren pareko eraikin neoklasiko batean; leku baketsua da Donostiako erdigunean. Hoteleko 50 logelek ongietorria ematen diete bidaiariei, kalitatezko esperientziaren, eskusibotasunaren eta benetakotasunaren bila datozen premium bidaiariei. Arbaso etxean bezala sentitzen da bezeroa, hotel eskusibo baten zerbitzuekin eta Narro jatetxearen proposamen gastronomikoarekin.

Helbidea:
Hondarribia, 24
20005 Donostia


Kontaktua:
T. (+34) 843 931 400
repcion@hotelarbaso.com

hotelarbaso.com



DE LONDRES Y DE INGLATERRA HOTELA

hotela



Helbidea:

Zubieta Kalea, 2
20007 Donostia

Kontaktua:

T. (+34) 943 440 770 / 900 808 822
reservas@hlondres.com

hlondres.com

De Londres y de Inglaterra hotela hiriko eraikin enblematikoenetakoa da, duen historia aberatsagatik eta pribilegiozko kokapenagatik entzutetsua: hiriaren erdian eta Kontxako badiaren parean dago.

150 urtetik gorako ibilbidean, berritzen eta premia berrietara egokitzen asmatu du, beti Belle Époque garaiko dirdiraren islari eutsiz. Xarma handiko 166 gela ditu, horien artean suite eksklusiboak eta terrazadun atikoak, guztiak itsasoari begira.

Maila goreneko 4 izarreko hotel honek lantalde adeitsua eta zerbitzu eksklusiboak eskaintzen ditu, bezerorik zorrotzenen asebetegarri.


Azpimarragarriak dira 24 orduko gela-zerbitzua, Clefs D'or atezaintza-zerbitzua eta 2025ean inauguratutako gastronomia-eremu berriko euskal gastronomiaren eskaintza gustagarria. Ostatu-hartzaileek sekula ahaztuko ez duten esperientzia.





LASALA PLAZA

hotela



Helbidea:
Lasala, 2
20003 Donostia

Kontaktua:
T. (+34) 943 547 000
info@lasalaplazahotel.com


lasalaplazahotel.com

Boutique-hotel honetan, Premium esperientzia donostiar batez gozatuko dute bezeroek, proposamen berezi baten bidez. Portuak, badiak eta Donostiako Alde Zaharrak bat egiten duten toki pribilegiatua, eraikin enblematikoaren azken xehetasuna ere apaintzen duen interiorismoa, eta izaera propioa adeitasuna, luxuzko bidaiariari harrera egiteko prest dagoena.

Bezeroak, gainera, ametsetak rooftop batean sartzeko eskusibotasuna izango du, eta, horrez gain, La Jarana jatetxeaz gozatu ahal izango du. Jatetxea hotelean integratuta dago, eta giro paregabea du. Bertan, donostiarrek eta bisitariek espazio bera partekatzen dute.

VILLA FAVORITA

hotela



Helbidea:
Zubieta, 26
20007 Donostia

Kontaktua:
T. (+34) 843 931 111 / 900 808 822
rvs@hotelvillafavorita.com

hotelvillafavorita.com



Gero eta antzekoagoa den mundu honetan, oraindik ere badira bereziak eta ezin ederragoak izatearen harrotasunari eusten dioten lekuak. Bere usain, zapora eta koloreagatik, eta Donostiako Kontxa pasealekuan duen kokalekuagatik, Villa Favorita leku berezia eta paregabea da, olatuen gorabeheren zein donostiarrek itsasoaren ondoan egiten dituzten joan-etorrien lekuko. Adults-only luxuzko hotel hau 2020an inauguratu zen. 23 logela ditu, Rafael Sitgesek dotoreziaz apainduak, eta eskaintza gastronomiko zoragarria, elkarren

osagarri diren bi gune bereizitan: Villa Favoritako taberna eta Paulo Airaudoren Amelia jatetxea, 2 Michelin izar dituen. Proposamen horiek mundu osoko foodie-ak erakartzen dituzte. Duela gutxi, Relax & Beauty by La Perla zerbitzu berria inauguratu dute, ongizatearen eta edertasunaren santutegi bat. Hoteleko anfitrioien talde profesional eta hurbilak ongietorri beroa egingo die bezeroei, eta atsegin handiz erakutsiko dizkie ostatuko leihotatik Donostia bisitatzean galdu ezin dituzten leku guztiak.



VILLA MAGALEAN

hotela

Helbidea:

Nafarroa Behera, 2
20280 Hondarribia


Kontaktua:

T. (+34) 943 569 130
info@villamagalean.com

villamagalean.com

Donostiatik eta Frantziako mugatik bi urratsetara, Hondarribiko herri arrantzale ederrean, Villa Magalean Hotel & Spa **** luxuzko boutique-hotel bat da, Art Deco dekorazioarekin girotua, arkitekturaren eta dekorazioaren zaleek zaharberritutako neoeuskal estiloko etxe batean. Terraza edo balkoi pribatua duten zortzi logela eta suite dotore eta paregabe ditu hotelak, eta haietan ostatatutako bezeroek arreta bikaina eta etengabea jasoko dute talde diskretu baten aldetik. Giro intimista horretan, Mahasti Gastronomic Wine Bar upategi bikaina eta Cinq Mondes etxearen spa bat egonaldi liluragarria biribiltzeko azken osagaiak dira.





FEELFREE RENTALS

apartamentuak

Helbidea:

Peña y Goñi, 3
20002 Donostia

Kontaktua:

T. (+34) 943 563 654
info@feelfreerentals.com

feelfreerentals.com

FeelFree Rentalsek apartamentu eta txaleten aukera eksklusiboa eskaintzen du, Donostiako kokalekurik onenetan: Kontxako hondartzara ikuspegi zabalak dituzten apartamentuak eta ingurune paregabeetan naturaz inguratutako txaletak, besteak beste.

Jabego bakoitza esperientzia ahaztezina bermatzeko dago pentsatua.

Bertako arkitekto eta barne-diseinatzaileen lantaldea arduratzen da espazio moderno, abegitsu eta funtzionalak sortzeaz, edozein bidaia-motarako egokiak (familiakoak, bikotearekin egitekoak edo lanekoak). Gainera, FeelFree Rentalsek 24/7 zerbitzua emateko bezeroaren arretarako lantaldea du, bai eta bulego fisiko bat ere hirian, edozein zerbitzu gehigarri artatu eta esperientzia pertsonalizatuak eskaintzeko.





AKELARRE

jatetxea




Helbidea:
Aita Orkolaga, 56
(Igeldo mendia)
20008 Donostia

Kontaktua:
T. (+34) 943 311 209
restaurante@akelarre.net

akelarre.net

Akelarre, 1975az geroztik, Pedro Subijananaren sinonimoa da; munduko gastronomiaren eta Gipuzkoako hiriburuko mendi enblematiko baten gailurrean dago kokatua. Michelin Izar bat du 1978tik, bi 1982tik eta hiru 2007tik; horrez gain, hiru Repsol Eguzki ditu; horrekin dena esanda dago. Euskal Sukaldaritza Berriaren aitzindaria, ikertzaile porrokatua, maisuen maisu, bi menu eskaintzen ditu jatorrizko Akelarren eta karta bat bere Espazio Oteizan, non eskultorearen lan bat dagoen. Terraza itsasoaren gainean. Zentzumenen inperioa.



Helbidea:
J. Elozegui alkatea, 273
20015 Donostia

Kontaktua:
T. (+34) 943 278 465
informacion@arzak.es

arzak.es

Arzak bisitatzea munduko gastronomiaren Olinpoan sartzea da. Maisuen maisu den Juan Mari Arzakek eta bere alaba Elenak munduko saririk entzutetsuenak bereganatu dituzte, biek batera eta bakoitzak bere aldetik. 1989az geroztik, hiru Michelin Izar dituzte. Hiru Repsol Eguzki ere badituzte. Beren sukaldaritzak alkimia da, eta aldaera organoleptiko berriak ikertzen, sortzen eta garatzen dituzte. Zapore-banku bat dute mila produktu eta osagairekin, eta haiekin lan egiten dute etengabe. Gizakientzako aparteko plazera, jainkoek egina. Bakarra.



MARTÍN BERASATEGUI

jatetxea




Helbidea:
Loidi, 4
20160 Lasarte-Oria

Kontaktua:
T. (+34) 943 366 471
info@martinberasategui.es

martinberasategui.com

Jatetxe hau Martín Berasategui maisuak zuzentzen dituen establezimenduen ikurra da. Sukaldari honen zuzendaritzapean dauden establezimenduek, guztira, hamabi Michelin Izar dituzte. Izar horietako hiruk, hiru Repsol Eguzkirekin batera, Lasarte-Oriako Martín Berasategi jatetxea argizatzen dute aspaldidanik. Jatetxe hau naturaz inguratutako tenplu gastronomiko bat da; bertan egiten den sukaldaritza berritzailea eta irudimentsua da, ingurunean errotua dago, eta upeltegi bikainaz lagundua. Hori guztia talde gazte eta profesional batek eszenaratzen du. Munduko gastronomian erreferentea, bisita aurrez imajinaezina da eta, ondoren, ahaztezina.





MUGARITZ

jatetxea



Helbidea:
Aldura Aldea, 20
20100 Errenteria

Kontaktua:
T. (+34) 943 522 455
reservas@mugaritz.com

mugaritz.com

Baserri zahar batean kokatua, bi euskal udalerriren (Errenteria eta Astigarraga) banalerroan, Mugaritzek, bi Michelin Izar eta hiru Repsol Eguzkirekin, sabelaz gain adimena elikatzeko diseinatutako esperientzia bat eskaintzen du. Mugaritz izenak muga eta duela 200 urtetik muga hori zaintzen duen haritza omentzen ditu. Muga hori ez da geografikoa soilik. Muga horrek Mugaritzen nortasuna ere definitu du, gastronomiaren eta artearen josturen artean, edo sukaldaritzaren eta zientziaren artean kokatu baitu. Andoni Luis Adurizek eta bere taldeak testurak, istorioak, zaporeak eta emozioak batzen dituen bizipen bat eskaintzen dute, esperientzia sensorial harrigarri eta estimulagarria eraikitzeko.





REKONDO

jatetxea

Helbidea:
Igeldo Pasealekua, 57
20008 Donostia

Kontaktua:
T. (+34) 943 212 907
restaurant@rekondo.com

rekondo.com

Rekondo jatetxea Igeldo mendiaren magalean dago, badiara begira, eta euskal gastronomia klasiko eta sasoikoa eskaintzen du. Michelin gidak gomendatzen du eta Repsol gidako bi Eguzki ditu. Haren ardo-upategia ere aintzatetsia da, besteak beste, Wine Spectator ardoei buruzko aldizkariaren eta La Revue du Vin de France aldizkari frantziarraren aldetik: munduko upategi onenetakoen artean kokatzen dute.



Donostiako AQUARIUMA

Helbidea:

Carlos Blasco de Imaz, 1 (portua)
20003 Donostia


Kontaktua:

T. (+34) 943 440 099
info@aquariumss.com

aquariumss.com

Donostiako Aquariuma munduko onenetakotzat jotzen da. Hitzartutako Premium bisitak eskaintzen ditu, ilararik gabe. Gidari aditu batek itsas hondoaren sekretuak erakutsiko dizkizu, eta soilik langileak sar daitezten eremu teknikorako atea irekiko dizu. Berrogeialdi-guneak, laborategia, espezie desberdinentzako sukaldea eta ezkutuko txokoak bisita daitezke, baita bi solairuetan jendeari irekitako 32 akuarioak ere.






CHILLIDA LEKU

museoa

Helbidea:
Jauregi Bailara, 66
20120 Hernani

Kontaktua:
T. (+34) 943 335 959
reservas@museochillidaleku.com
museochillidaleku.com

Chillida Leku munduan parekorik ez duen museoa da. Eduardo Chillida eskultore gipuzkoar unibertsalak sortu zuen, artean bizi zela. Bertan, eskultorearen obra naturaren erdian dago, paisaia erabat integratuta, betidanik haren osagaietako bat izan balitz bezala. Artistak berak zaharberritutako XVI. mendeko Zabalaga baserrian, berriz, artistaren obrarik intimoenak daude ikusgai, Chillida Lekuko esperientzia osatzeko. Museoak premium bisita gidatuak ere eskaintzen ditu, Chillida familiako kideen eskutik. Esperientzia ahaztezina, zinez.



CRISTÓBAL BALENCIAGA

museoa




Helbidea:
Aldamar Parkea, 6
20808 Getaria

Kontaktua:
T. (+34) 943 008 840
info@fbalenciaga.com

cristobalbalenciagamuseoa.com

Jostun handiaren jaioterrian, museo honek Balenciagak goi-mailako jostintzaren munduan egindako ibilbidea islatzen du; ibilbide horren lehen 20 urteak Gipuzkoan egin zituen eta, ondorengoak, Parisen. Bere bilakaera 4.500 piezako baino gehiagoko bilduma bikain batean erakusten da –hasierako urteetan egin zituen pieza asko daude-. Museoak bisita pertsonalizatuak eskaintzen dizkie premium bezeroei. Bisita horiek adituek gidatzen dituzte arratsaldetan, atek itxi ondoren, bai eta gauetan ere; horrez gain, beste arte batzuekin konbinatutako esperientziak eskaintzen dira, hala nola musika edo dantza eta arte enogastronomikoak.





Helbidea:
Jaizubia, 266
20280 Hondarribia

Kontaktua:
T. (+34) 943 104 060
reservas@hiruzta.com

hiruzta.com



Hondarribia historikoan, familia-upategi honek hamazazpi hektarea mahastiz inguratutako finka batean egiten ditu txakolinak, bertako mahats-barietatearekin. Neurria egindako bisita pribatuak eskaintzen ditu, dastatze pertsonalizatuak antolatzen ditu bere txakolinekin, bertako eta sasoiko produktuekin egindako pintxoekin lagunduta. Gainera, eguna biribiltzeko, aukera eskaintzen du bere wine barrean edo Sutan erretegian bazkaltzeko; bertan, hurbileko eta sasoiko sukaldaritza egiten da, parrilla protagonista dela. Benetako gozamen gomendagarria turista enogastronomikoentzat.





KATXIÑA


upategia jatetxea

Helbidea:
Ortzaika, 20
20810 Orio

Kontaktua:
T. (+34) 943 580 166
info@bodegakatxina.com

bodegakatxina.com

Katxiña Upategian euskal kostaldeko gastronomia guztia batzen da. Zatoz 1969tik gastronomiari lotuta egon den familia baten etxera, eta ezagutu haien upategian egiten duten ardo zuria: Katxina txakolina. Upategia bisitatu eta dena ikasiko duzu ardo jator eta harrigarri honi buruz. Dastatu txakolina tokiko produktuekin, eta, jatetxean —2 Repsol Eguzki ditu—, txingarretan egindako arrain eta haragiak.



MIMO BITE THE EXPERIENCE

Donostia

Helbidea:
Okendo, 1
20004 Donostia

Kontaktua:
T. (+34) 943 062 018
info@mimo.eus

mimo.eus

Mimo Bite The Experience sukaldaritza-eskolak, Maria Cristina Hotel enblematikoan dagoenak, sukaldaritza-ikastaroak, tour gastronomikoak, afari pribatuak, teambuilding-lantegiak eta mota guztietako ekitaldi gastronomikoak eskaintzen ditu. Esperientzia handiko bi chef profesional ezagun dira eskolaren buru, eta bezeroa etxean bezala sentitzeko behar den guztiaz hornituta dago. Gure eskualdeko tokiko produkturik onenak erabiltzen dituzte, bezeroek esperientzia paregabe eta ahaztezin honetaz goza dezaten.



BRAI KANTAUARI



Helbidea:
Mollaberria
20000 Donostia

Kontaktua:
T. (+34) 652 705 174 / 658 723 194
brai@brai.eus


brai.eus


BRAI-KANTAUARI 2020an sortu zen, Gipuzkoako kostaldearekiko —historia eta paisaia ikusgarriak— pasioa bidaiariak zoriontsu egiteko ilusioarekin uztartzearen emaitza gisa. Horretarako, BRAIK hainbat esperientzia nautiko eskaintzen ditu, ahalik eta erosoena, eta xehetasun eta arreta handienaz hornituak, eta bidaiarien beharretara ahalik eta gehien egokituta.

Iraupen guztietako birak egin daitezke, bi ordutik hasita, eta neurritik prestaturako itsas jardunaldi osoak ere eskaintzen dira.

Tokiko produktu gastronomikoekin egindako menu bereziak ematen dituzte, chef profesionala den kapitainaren eskutik. Ezin hobea da urteurren bat ospatzeko, bikotekidearekin ilunabarra ikusteko, badiatik su artifizialak ikusteko edo Jazzaldia itsasotik entzuteko.

Zure ametsa bada, BRAIK gauzatu egingo du.





NAVEGAVELA

Helbidea:

La Lasta kirol-portua, 1
20009 Donostia
Minareta kirol-portua, z/g
20280 Hondarribia

Kontaktua:

T. (+34) 648 183 037
info@navegavela.com

navegavela.com

Itsasotik zure helmuga turistikoaen kostaldea ezagutzea, belaontzian edo ontzi motordunean, txangoa ahaztezin egingo duten arreta-xehetasunekin, horixe da 2000n sortutako Navegavela enpresaren zeregina. Askotariko alokairu-ontziak ditu, patroidunak edo patroirik gabeak, bidaiarien kopuruari, interes turistikoei eta eskatutako kalitate handiari egokituak. Ontziak Donostiako eta Hondarribiko kirol-portuetatik ateratzen dira batik bat, eta Bizkaiko kostaldera ere iristen dira.



OSTARTE SAILING





Helbidea:
Kaiko, z/g
20003 Donostia

Kontaktua:
T. (+34) 687 255 661
info@ostartesailing.com
ostartesailing.com

Enpresa 2017an sortu zen. Sortzaileek belaontzian nabigatzea maite zuten eta historia handiko egurrezko bi ontzi erosteko aukera izan zuten: Lucretia (1927) eta Tanit (1961). Tripulaziodun nabigazio-zerbitzua eskaintzen dute, neurria egindakoa: egunero bi eta zortzi ordu bitarteko irteerak, asteburuak edo aste-singladurak, bikote edo taldeentzat beren interesetara egokituta: portuetara bisitak, ikuspenak, estropadak, argazkiak, bilerak... Oso esperientzia eksklusibo bat.





ORIBAY TOURS

Helbidea:
Mollaerdia Kalea, 6
20003 Donostia

Kontaktua:
T. (+34) 666 293 057
oribay@oribay.tours

www.oribay.tours

Kontxako badiaren itsas ondarrera hurbiltzeko proposamen paregabe, pertsonal eta ezberdina. Oribayk erabiltzaile bakoitzaren profilerak eta itsasoari buruz den ezaguerara egokitutako ibilbide pertsonalizatuak eskaintzen ditu.

Ingurune itsasotarrarekiko elkarrekintza da proposamenaren ardatza: inguruan dugunarekiko begirunea erakutsi, agerrarazi eta sustatzen duen txangoa.

Guztia ontziburu eta gidari profesional baten eskutik; bezeroa berehala moldatuko da harekin. Elkarren arteko harreman ona ezinbestekoa izango da guztia behar bezala joan dadin. Ontziburua aliatu bikaina izango da, natura lagun, uneoro aholku emateko arrantza-egunari ahalik eta etekin handiena ateratze aldera.

REALE ARENA - REAL SOCIEDAD

Helbidea:

Anoeta, 1
20014 Donostia

Kontaktua:

T. (+34) 943 462 833
events@realsociedad.eus

hospitality.realsociedad.eus

Reale Arena Ligako klubik zaharrenetako baten etxea da, Realarena, alegia. Eskusibotasunez bisita daitezkeen estadio moderno eta enblematikoenetako bat da. Zur eta lur utziko zaituen premium esperientzia bat. Partidarik ez dagoen egunetako VIP esperientziak gure etxea ezagutzeko gehien eskatzen diren ekitaldietako batzuk dira. Bisitariak ongietorriko sorta bat jasoko du, gidari batek Reale Arenako gunerik enblematikoenetan barrena lagunduko dio, esperientzia erreala goa biziko du bisitaldi birtual batekin, lagunekin mokadutxo gustagarri bat dastatuko du leku eksklusibo batean eta estadio barruan jardura bereziren bat ere antolatu ahal izango diote.





BOX SAN SEBASTIÁN



Helbidea:

San Martin Kalea, 12
20005 Donostia
Garibai Kalea, 25
20004 Donostia


Kontaktua:

T. (+34) 943 421 240
info@boxsansebastian.com

boxsansebastian.com

BOX San Sebastiánekoak maisu larrukigileak dira 1948az geroztik, eta, ondorioz, bisitatu beharreko leku bilakatu dira, eskusibotasuna, dotorezia eta kalitatea bilatzen duen bisitariarentzat. Donostiako merkataritzaren klasiko honek estilo atemporaleko bilduma zabala eta giro berezia eskaintzen ditu, eta harridura sorrazten du bere unibertso estilistikoari esker eta Donostiako arkitekturekin, naturarekin eta paisaiarekin dituen loturei esker. Donostian dauden bi establezimenduetako batera hurbiltzen direnek munduko larrurik onenarekin egindako txaketa, jaka eta berokien bilduma zoragarri batekin eta berriki zapataren mundura eman duten jauziarekin egingo dute topo. Erosotasuna, funtzionaltasuna, kalitate gorena eta artisau-jakinduria lehenesten dituen bilduma zaindua da. Denda abangoardista honen ezaugarri dira ekodiseinua, ekonomia zirkularra eta gizarte-erantzukizuna ere.



**Helbidea:**

Garibai, 3
20004 Donostia

Kontaktua:

T. (+34) 943 397 308
comercial@minimil.es

minimil.es

Contxu Uzkudunek, New Basque Styleren sortzaileak, duela mende-erdia sortu zuen Minimil boutiquea, emakumeak estilo denboragabe, soil eta dotore batekin jatzeko. Cristóbal Balenziaga eta antzeko sortzaileak ditu inspirazio-iturri, eta bere jantziek atxikita daramate lurraren eta kulturaren izaera. Pieza berdingabeak dira. Gaur egun, haren alabek, Ana eta Beatriz Zuaznabarrek, espiritu berari eusten diote, eta saiatzen dira nazioarteko joerak euskal modaren ezaugarrietara egokitzen. Euskadiko hiru hiriburuetan du presentzia.





CASA MUNOA


bitxi-denda

Helbidea:
Aldamar, 28
20003 Donostia

Kontaktua:
T. (+34) 943 422 847
j.munoa@telefonica.net


casamunoa.com

1935az geroztik, Casa Munoa bitxigintzako erreferentia da Gipuzkoako hiriburuan. Gaur egun, hirugarren urregileen belaunaldiak pieza berriak diseinatzen eta fabrikatzen ditu dendan bertan kokatutako tailerrean, eta lan horretarako duen grina du bereizgarri. Bertan enkarguzko piezak sortzen dira, antzinako piezak diseinu berriein eraldatzen edo zaharberritzen dira, eta kalitate handiko piezak eskuz egiten dira. Esklusibotasuna maite dutenentzako oparia.



BENEGAS

lurrin-denda



Helbidea:
Garibai, 12
20004 Donostia

Kontaktua:
T. (+34) 943 420 305
info@perfumeriabenegas.com

perfumeriabenegas.com

1908az geroztik maisu-maistra perfumegile, Benegasek munduko marka onenen eta bere marken aukeraketa bikaina eskaintzen die bisitariei: *Benegas kolonia* eta *SSirimiri-Donostiako* esentzia. Kosmetikan eta makillajean preskripziorik onena ematen dute, eta, edertasun-kabinan, larruazal mota bakoitzerako tratamendu pertsonalizatuak eskaintzen dituzte. Produktu-barietate handiari esker, turistak ziur aurkituko du bere buruarentzako edo senide edo lagunentzako oparirik onena. Aholkurik onena, bete-betean asmatzeko.



REAL SOCIEDAD DE FÚTBOL

denda ofiziala

Helbidea:

Elkano Kalea, 4,
20005 Donostia
Anoeta Pasalekua, 6,
20014 Donostia

Kontaktua:


T. (+34) 943 257 486
rsstore@realsociedad.eus

rsstore.realsociedad.eus/es/

1909az geroztik, Real Sociedad futbolaren historiaren parte da, LaLiga bi txapelketa, hiru Errege-kopa, Erregina-kopa bat eta Superkopa bat irabazi baititu. Denda ofizialek, erosketa-esperientzia paregabeaz goatzera eta momentu horien parte izatera gonbidatzen zaituzte. Estadioan kokatutako dendan, bizi partidaren zirrara, eta eskuratu azken produktuak. Berriz, Donostiako bihotzean dagoen dendan, murgildu hiriren xarman eta topa ezazu oroigarri eder bat.

Bi dende futbolarekiko, gure balioekiko eta kolore txuri-urdinekiko pasioa bizitzeko aukera eskaintzen dute, bai eta zerbitzu esklusiboak ere: ate-irekitze pribatuak eta erosketak hotelean entregatzea, adibidez. Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi... REAL!!!



**Helbidea:**

Las Dunas kalea, 1
20002 Donostia / San Sebastián


Kontaktua:

T. (+34) 943 297 545
info@artekogallery.com

artekogallery.com

1996az geroztik, Gros auzoan dagoen Arteko Gallery arte garaikidearen erreferente gisa sendotu da, sorkuntza eta berrikuntza gustuko dutenentzat erakusleirio bilakatuta. Berezko zigiluarekin, galeria honetan artista ospetsuen (Eduardo Chillida, Esther Ferrer eta Miquel Barceló) eta etorkizun oparoko gazteen proposamenak uztartzen dira, diziplina artistiko ugari barne hartuz.

Arteko aitzindaria da paper gaineko obrak, artista-liburuak eta emakumeak artearen munduan duen egitekoaren aldarrikapena sustatzen. Gainera, arte digitalerantz duen begirada berritzaileari esker, joera garaikideen abangoardian dago, bere dinamismoagatik eta ikuspegi bereziagatik nabarmenduz.





EKAIN ARTE LANAK

arte-galeria

Helbidea:
Iñigo, 4
20003 Donostia

Kontaktua:
T. (+34) 943 421 729
info@ekainartelanak.com

ekainartelanak.com

Ekain Arte Lanak galeria euskal artearen sorkuntza eta pentsamendu garaikiderako gune dinamikoa da. Donostiako alde zaharraren bihotzean, 120 m2 ditu, hiru eremutan banatuta: erakusketa-aretoa, galeriaren funtsa eta artista gonbidatuaren eremua. Erakusketa-proposamenak batetik bestera txandakatzen dira, eta artista finkatuen zein sortzen ari diren talentuen proiektuak hartzen ditu. 1999tik, Ekain galeriak eskultura-lanetan, pintura-lanetan eta

obra grafikoan jartzen du arreta, aholkularitza pertsonalizatua emateko eta Donostiako kultura-eskaintzari balio erantsia emateko.

Galerian egon diren artisten artean, honako hauek ditugu: Jose Luis Zumeta, Maria Paz Jimenez, Marta Cárdenas, Rafa Ruiz Balerdi, Amable Arias, Andrés Nagel, Clara Gangutia, Juan Luis Goenaga, Koldobika Jauregi, Miguel Balliache, Eduardo Chillida eta Vicente Ameztoy.



BQD BASQUE DESTINATION

agentzia


Helbidea:
Erribera, 5
20750 Zumaia

Kontaktua:
T. (+34) 943 326 306
info@basquedestination.com

basquedestination.com

Basque Destinationek gure lurraldean aurki daitezkeen esperientziarik eksklusiboenen katalogoa eskaintzen du: berezko arima duten boutique hotelak; Michelin izardun jatetxeak, erroak gure lurrian sustraituta dituztenak; upategi berdingabeak, bisitaria eta haren zentzumenak harriturik uzten dituztenak; gure iraganeko eta oraingo historia jaso eta erarik berritzaileenean erakusten duten museoak; kultura-, natura- eta gastronomia-murgiltzeak, bertako gida adituen eskutik. Basque Destinationekin fidatzen direnen sentipena definitzen du haren leloak: «As locals, with locals, by locals».





TENEDOR TOURS

agentzia

Helbidea:

Fermin Calbeton, 27 - 1°
20003 Donostia

Kontaktua:

T. (+34) 609 467 381 / 943 436 321
info@tenedortours.com

tenedortours.com

Tenedor Tours bidaia-agentziak kulturaren eta gastronomiaren alorretan interesgarriak diren neurrirako bidaiek antolatzen ditu, enpresa, talde eta banakoentzat.

1997az geroztik enpresaren alorreko ekitaldi, pizgarri eta bilkura (MICE) ugari aholkatu eta kudeatzen ditu agentziak. Era berean, txangoak, ibilbideak, egonaldi korporatiboak, lantegiak eta bisita bereziak antolatzen dituzte, bai leku sekretuetara, bai mundu osoan ezagutu arren sarbide eksklusiboa dutenetara. Donostiako eta Euskal Herriko kulturaren eta gastronomiaren ikuspegi berdingabe, atsegin eta sakona eskaintzen dute.



TALUR LUXURY CARS

Helbidea:
Donostia Ibilbidea, 124
20115 Astigarraga

Kontaktua:
T. (+34) 943 102 737
info@talurluxurycars.com

talurluxurycars.com

Gidaridun luxuzko ibilgailuen enpresa hau irtenbide ezin hobea da bisitarientzat, ibilgailu bat nahierara izango baitute aireportura edo tren-geltokira iristen direnetik bueltan itzultzen diren arte. Gidariek oso ondo ezagutzen dute lurraldea, eta horrek balioa eranstean dio zerbitzuari. Oso flota zabala du, taldeentzat ere egokia dena. Hori dela eta, behar guztiei erantzuten die: ibilbide turistiko gidatuak, irteera enogastronomikoak edo, hala eskatuz gero, etengabeko arreta, bezeroak Euskadin egingo duen egonaldi osoan. Bezeroentzako erabateko malgutasunarekin.





**Donostia
San Sebastián**
Premium

premium.sansebastianturismoa.eus
sansebastiantraveltrade@donostia.eus
+34 943 48 11 66



**Donostia
San Sebastián**



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**
Turismoa



**MUY
GIPUZKOA**
SAN SEBASTIÁN

EUSKADI
BASQUE COUNTRY